

Probaren data aldaketa

Uharteko Udalaren Alkateak, 2011ko ekainaren 30ean, ebazpen bidez onartu eta Uharteko Iragarki Oholean eta www.huarte.es Web orrian iragarri zuen Uharteko Udalaren Musika Patronatuko tronpeta irakasle aritzeko izangaien zerrenda bat, hautapen proben bitartez, eratzeko deialdiaren 5. oinarrian, 5.3. puntuan, ezartzen zen aipatu proba horiek irailaren 1ean burutuko zirela.

Ikusirik data horretan beste deialdi bat badagoela eta izena eman duten pertsonen bi deialdietan aurkezteko aukera errazteko, iragartzen dugu Uharteko Udalaren Musika Patronatuko tronpeta irakasle aritzeko izangaien zerrenda bat eratzeko deialdiaren hautapen probak irailaren 8ko, osteguna, 10:00etara pasatzen direla, lekua bera mantenduz.

Era berean, izangaiei jakinarazten zaie tronpeta ekarri behar dela probak egin ahal izateko. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean, Musika Eskolako zuzendariak izangai bakoitzari zuzenean deituko dio.

Uharte, 2011ko abuztuaren 2a